

112. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2017ko uztailaren 27an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak: Gotzon Embil Unanue jna.
Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Ane Arregi Urbietta, and.
Alex Oliden Antia jna.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Josu Arrieta Arriola jna.
Joseba Josu Azpiazu Azkarraga jna.
Nerea Eizagirre Telleria and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak: M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Ione Muguerza Egaña and.

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



EGUNEKO AZTERGAIK

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:

- (108. zbkia - 2016.12.29
- 109. zbkia - 2017.02.08
- 110. zbkia - 2017.03.16
- 111. zbkia - 2017.05.25)

108., 109., 110. eta 111. Aktak onartu dira.

2.- OGASUNA.-

2.1.- 4/2017 ERREPARO ORRIAREN ETA HONEN ALKATE DEKRETUAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (4/2017):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

| KONTRATUEN ERANSKINA | | | | |
|----------------------|-------------------------------|---------------------|----------|-------------|
| Enpresa | Kontratututako zerbitzua | Data Kontratua | Iraupena | data amaitu |
| GESMUNPAL | Recaudación ejecutiva | 26/07/2010 | 2+2 | 26/07/2014 |
| Eulen | Kudeaketa Branka y SAD | 01/02/2009 | 1 + 1 | 01/02/2011 |
| UNI 2 | Limpieza edificios-ampliación | 19/10/2009 | 1 año | 19/11/2010 |
| UNI 2 | Limpieza edificios municipale | 01/07/2009 | 1+1 | 01/07/2011 |
| Harrespil S.L. | Hilerria-kudeaketa | 01/03/2005 | 1+1 | 01/03/2007 |
| Kastore Gest S.L. | Hainbat zerbitzu | 05/11/2009 | 2+1 | 05/11/2012 |
| Urbiet&Egaña | Aita Mari Zinea | 4/04/2011 (luzapena | | 04/04/2011 |
| "ZUMAIA UTE" FCC-SEI | Lorezantza | 02/07/2012 | 2+2 | 02/07/2016 |
| KALEXKA | Kale Heziketa | 41096 | 2+2 | 01/07/2016 |

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duena.



Bigarren xedapen gehigarria. Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, homidura-kontratuak, zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta



martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"213. artikulua. Barneko kontrola."

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gaitzerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
|-----------------|------------------|--|---|----------------------|
| 2017/05/11 | 632017 | KALEXKA Elkartea | APIRILA: EKINTZARAKO FAKTURA | 391,08 |
| 2017/05/30 | 0702017 | KALEXKA Elkartea | MAIATZAKO FAKTURA | 3502,82 |
| 2017/06/06 | 0822017 | KALEXKA Elkartea | MAIATZA EKINTZARAKO FAKTURA | 124,52 |
| 2017/03/31 | 3437882 | EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS | MARTXOA : EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA | 25.272,95 |
| 2017/05/30 | 119/17 | KASTORE GEST, S.L. | MAIATZA: KULTURA SAILA | 1.021,70 |
| 2017/05/31 | 1703565 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Branka | 1.073,09 |
| 2017/05/31 | 1703566 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Udaletxea | 2.790,02 |
| 2017/05/31 | 1703567 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Udaltzaingoa | 643,85 |
| 2017/05/31 | 1703568 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Ludoteka | 804,82 |
| 2017/05/31 | 1703569 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Turismo | 643,85 |
| 2017/05/31 | 1703570 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Algorri | 740,92 |
| 2017/05/31 | 1703571 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Gaztetxola | 214,62 |
| 2017/05/31 | 1703572 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Kaleko Komunak | 2.924,15 |
| 2017/05/31 | 1703573 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Alondegia | 3.111,94 |
| 2017/05/31 | 1703574 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Aita Mari Ikastetxea | 5.901,96 |
| 2017/05/31 | 1703575 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Sagarbide | 9.550,45 |
| 2017/05/31 | 1703576 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Arrangoletako haurtzaindegia | 1.985,21 |
| 2017/05/31 | 1703577 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Jubilatuen etxea | 1.609,63 |
| 2017/05/31 | 1703578 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Bake epaitegia | 214,62 |
| 2017/05/31 | 1703579 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Markesina | 80,48 |
| 2017/05/31 | 1703580 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Aita Mariko haurtzaindegia | 1.985,20 |
| 2017/05/31 | 1703581 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Okiako eskola | 1.609,63 |
| 2017/05/31 | 1703582 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Brigada | 107,30 |
| 2017/05/31 | 1703583 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA E.P.A. | 643,85 |
| 2017/05/31 | 1703584 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Jadarreko igogailuak | 209,69 |
| 2017/05/31 | 1703585 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Foronda | 160,97 |
| 2017/05/31 | 1703586 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Aradantzabideko igogailua | 212,98 |
| 2017/05/31 | 1703587 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Torreberri | 536,55 |
| 2017/05/31 | 1703588 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Ubillos | 712,47 |
| 2017/05/25 | 2017/155 | GESMUNPAL | APIRILA | 1.977,94 |
| 2017/05/31 | 17A0006 | U.T.E. ZUMAI | MAIATZA Zumaia berdegune, parke, lorategi eta zuhaitzak mantendu, zaindu, aldatu eta hobetzeko zerbitzua. | 12.144,02 |
| | | | | 82.903,28 |

d) Aurrekontuan aurreikusi gabe zeuden honako faktura hauek ere iritsi dira:

| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
|-----------------|------------------|-----------------------------|---|----------------------|
| 2017/01/15 | 17013/2017 | Tesec Señalizaciones | SEINALIZAZIO HORIZONTALA : Txomin Agirre kaia, Aita Mari auzategia, Lubaki kiroldegia | 580,23 |
| 2017/01/31 | VFAC/000154 | AIA DEK, S.A. | PINTURA | 820,45 |
| 2017/01/27 | 112029164 | Señalización Lacroix | Trafiko seinaleak "Abrazadera sencilla 76" | 297,72 |
| 2017/03/07 | 112029436 | Señalización Lacroix | Trafiko seinaleak: Ardantzabide - OTA - carga descarga, Algorri zentroa, Baserriak | 343,28 |
| 2017/02/07 | 112029265 | Señalización Lacroix | Trafiko seinaleak: "Abrazadera Base y Brida 76" | 159,72 |
| 2017/02/10 | 2017/014 | Paskin Señalizaciones, S.L. | Trafiko seinaleak : OTA | 843,37 |
| 2017/03/29 | 2017042 | Cocinas Hontza, S.L. | ARROA KALEA 6-2.B etxebizitzaren sukalde | 3.521,00 |
| 2017/03/29 | 2017043 | Cocinas Hontza, S.L. | ARROA KALEA 6-2.B etxebizitzaren sukaldeko instalazioak | 171,18 |
| 2017/03/29 | 2017044 | Cocinas Hontza, S.L. | ARROA KALEA 6-2.B etxebizitzaren sukaldean egindako lanak | 152,46 |
| 2017/06/06 | 01/2017 | Erkibe Kultur Elkartea | Kanporatuen 80. Urteurrena | 3.663,35 |
| | | | | 10.552,76 |



| e) Inolako irizpiderik gabe eman diren ondorengo diru-laguntzak: | | | | |
|--|------------------|----------------------------------|-----------------------------------|----------------------|
| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
| 2017/06/06 | | Zumalai Kultur Elkartea | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 4.600,00 |
| 2017/06/06 | | NARRONDOKO JAI BATZORDE ELKARTEA | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 4.200,00 |
| 2017/06/06 | | MANTZIOR KULTUR ELKARTEA | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 8.750,00 |
| 2017/06/06 | | ARTADIK L E | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 6.300,00 |
| | | | | 23.850,00 |

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hiler ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, eraikuntza publikoen garbiketaren kontratua. Kontratu honek lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Mementoz, zerrendatutako fakturen ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Zumaian 2017ko ekainaren 8an.
Zumaia Kontu-hartzailea
Lioba Maiza Recondo

406/2017 ALKATE DEKRETUA**AURREKARIAK**

2017ko ekainaren 9an kontu-hartzaileak honako erreparorria jakinarazi dit (4/2017)

Kontu-hartzaileak, Zumaia kontratuen egoeraz interesaturik, Udaleko kontratuen informazioa eguneratu ondoren, honako hauek epez kanpo aurkitu ditu:

| KONTRATUEN ERANSKINA | | | | |
|----------------------|-------------------------------|---------------------|----------|-------------|
| Enpresa | Kontratututako zerbitzua | Data Kontratua | Iraupena | data amaitu |
| GESMUNPAL | Recaudación ejecutiva | 26/07/2010 | 2+2 | 26/07/2014 |
| Eulen | Kudeaketa Branka y SAD | 01/02/2009 | 1 + 1 | 01/02/2011 |
| UNI 2 | Limpieza edificios-ampliación | 19/10/2009 | 1 año | 19/11/2010 |
| UNI 2 | Limpieza edificios municipale | 01/07/2009 | 1+1 | 01/07/2011 |
| Harrespil S.L. | Hilerria-kudeaketa | 01/03/2005 | 1+1 | 01/03/2007 |
| Kastore Gest S.L. | Hainbat zerbitzu | 05/11/2009 | 2+1 | 05/11/2012 |
| Urbietta&Egaña | Aita Mari Zinea | 4/04/2011 (luzapena | | 04/04/2011 |
| "ZUMAIA UTE" FCC-SEI | Lorezantza | 02/07/2012 | 2+2 | 02/07/2016 |
| KALEXKA | Kale Heziketa | 41096 | 2+2 | 01/07/2016 |



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, hainbat kontratu epez kanpo daudela ohartarazten du. Horren aurrean, aplikagarriak zaizkion arauak aipatzeaz gain, indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi direla zehazten du, beste batzuk aurrekontuan aurreikusi gabe daudela, eta diru-laguntza batzuk inolako irizpiderik gabe eman dira.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

| b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira: | | | | |
|--|------------------|--|--|----------------------|
| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
| 2017/05/11 | 632017 | KALEXKA Elkartea | APIRILA: EKINTZARAKO FAKTURA | 391,08 |
| 2017/05/30 | 0702017 | KALEXKA Elkartea | MAIATZAKO FAKTURA | 3502,82 |
| 2017/06/06 | 0822017 | KALEXKA Elkartea | MAIATZA EKINTZARAKO FAKTURA | 124,52 |
| 2017/03/31 | 3437882 | EULEN SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS | MARTXOA : EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA | 25.272,95 |
| 2017/05/30 | 119/17 | KASTORE GEST, S.L. | MAIATZA: KULTURA SAILA | 1.021,70 |
| 2017/05/31 | 1703565 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Branka | 1.073,09 |
| 2017/05/31 | 1703566 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Udaletxea | 2.790,02 |
| 2017/05/31 | 1703567 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Udaltzaingoa | 643,85 |
| 2017/05/31 | 1703568 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Ludoteka | 804,82 |
| 2017/05/31 | 1703569 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Turismo | 643,85 |
| 2017/05/31 | 1703570 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Algorri | 740,92 |
| 2017/05/31 | 1703571 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Gaztetxola | 214,62 |
| 2017/05/31 | 1703572 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Kaleko Komunak | 2.924,15 |
| 2017/05/31 | 1703573 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Alondegia | 3.111,94 |
| 2017/05/31 | 1703574 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Aita Mari Ikastetxea | 5.901,96 |
| 2017/05/31 | 1703575 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Sagarbide | 9.550,45 |
| 2017/05/31 | 1703576 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Arrangoletako haurtzaindegia | 1.985,21 |
| 2017/05/31 | 1703577 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Jubilatuen etxea | 1.609,63 |
| 2017/05/31 | 1703578 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Bake epaitegia | 214,62 |
| 2017/05/31 | 1703579 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Markesina | 80,48 |
| 2017/05/31 | 1703580 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Aita Mari haurtzaindegia | 1.985,20 |
| 2017/05/31 | 1703581 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Oikiako eskola | 1.609,63 |
| 2017/05/31 | 1703582 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Brigada | 107,30 |
| 2017/05/31 | 1703583 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA E.P.A. | 643,85 |
| 2017/05/31 | 1703584 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Jadarreko igogailuak | 209,69 |
| 2017/05/31 | 1703585 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Foronda | 160,97 |
| 2017/05/31 | 1703586 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Aradantzabideko igogailua | 212,98 |
| 2017/05/31 | 1703587 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Torreberri | 536,55 |
| 2017/05/31 | 1703588 | Union Internacional de Limpiezas, S.A. | MAIATZA Ubillos | 712,47 |
| 2017/05/25 | 2017/155 | GESMUNPAL | APIRILA | 1.977,94 |
| 2017/05/31 | 17A.0006 | U.T.E. ZUMAIA | MAIATZA Zumaia berdegune, parke, lo-rategi eta zuhaitzak mantendu, zaindu, aldatu eta hobetzeko zerbitzua. | 12.144,02 |
| | | | | 82.903,28 |

| d) Aurrekontuan aurreikusi gabe zeuden honako faktura hauek ere iritsi dira: | | | | |
|---|------------------|----------------------------|--|----------------------|
| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
| 2017/01/15 | 17013/2017 | Tesec Señalizaciones | SEÑALIZAZIO HORIZONTALA : Txomin Agirre kaia, Aita Mari auzategia, Lubaki kiroldegia | 580,23 |
| 2017/01/31 | VFAC/000154 | AIA DEK, S.A. | PINTURA | 820,45 |
| 2017/01/27 | 112029164 | Señalización Lacroix | Trafiko seinaleak "Abrazadera sencilla 76" | 297,72 |
| 2017/03/07 | 112029436 | Señalización Lacroix | Trafiko seinaleak: Ardantzabide - OTA - carga descarga, Algorri zentroa, Baserriak | 343,28 |
| 2017/02/07 | 112029265 | Señalización Lacroix | Trafiko seinaleak: "Abrazadera Base y Brida 76" | 159,72 |
| 2017/02/10 | 2017/014 | Paskin Señalizazioak, S.L. | Trafiko seinaleak : OTA | 843,37 |
| 2017/03/29 | 2017042 | Cocinas Hontza, S.L. | ARROA KALEA 6-2.B etxebizitzaren sukalde | 3.521,00 |
| 2017/03/29 | 2017043 | Cocinas Hontza, S.L. | ARROA KALEA 6-2.B etxebizitzaren sukaldeko instalazioak | 171,18 |
| 2017/03/29 | 2017044 | Cocinas Hontza, S.L. | ARROA KALEA 6-2.B etxebizitzaren sukaldean egindako lanak | 152,46 |
| 2017/06/06 | 01/2017 | Erkibe Kultur Elkartea | Kanporatuen 80. Urteurrena | 3.663,35 |
| | | | | 10.552,76 |



| e) Inolako irizpiderik gabe eman diren ondorengo diru-laguntzak: | | | | |
|--|------------------|----------------------------------|-----------------------------------|----------------------|
| FAKTURAREN DATA | FAKTURA ZENBAKIA | INTERESATUA | KONTZEPTUA | GUZTIZKOA BEZA BARNE |
| 2017/06/06 | | Zumalai Kultur Elkartea | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 4.600,00 |
| 2017/06/06 | | NARRONDOKO JAI BATZORDE ELKARTEA | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 4.200,00 |
| 2017/06/06 | | MANTZIOR KULTUR ELKARTEA | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 8.750,00 |
| 2017/06/06 | | ARTADI K L E | Auzoetako jaietako diru laguntzak | 6.300,00 |
| | | | | 23.850,00 |

ERABAKIA:

Ikusirik:

Epez kanpoko 9 kontratu hauek, aurreko udal gobernua gai honen inguruan izan duen inakzioaren emaitza dira.

Erabaki dut:

1. Epez kanpoan dauden kontratu bakoitza ahalik eta azkarren esleitzeko konpromisoa hartzea, gure agendan lehentasuna emanaz.
2. Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Zumaian, 2017ko ekainaren 9an.
Oier Korta Esnal
Zumaia Alkatea.

Alkateak gaiaren berri eman du

2.2.- UDALAREN 1.eta 2.go KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA

Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak 2017ko ekainaren 12ko Dekretuan agindutakoa betez, eta 1174/1987 Errege Dekretuak, irailaren 18koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikularen g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordainketa kredituen gerakinak hurrengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan txertatu litezke, bertan adierazitako kasuetan, beti ere horretarako behar adinako finantza-baliabideak baldin badaude.

Aurrekontuaren likidazioaren ondorioz kreditu gerakinak zehaztu behar dira, besteak beste. Gainera, bertan adierazi beharko da kreditu horietatik zeintzuk betetzen dituzten txertagarriak izateko aipatutako foru arauak exijitzen dituen baldintzak.

Finantzaketa lotua duten gastuetan, horiei dagozkien kreditu gerakinak derrigorrez txertatu beharko dira, ondoko kasuetan ezik: uko egiten zaionean gastuaren gauzatzeari edo gastua gauzatzetik ez dagoenean.

Nolanahi ere, kreditu txertaketa ekitaldi honetako ekainaren 30a baino lehen egin beharko da.



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

Bestalde, 21/2003 Foru Arauak 32.4. artikuluan ezartzen duenez, txertatzen diren kredituak txertaketaren ekitaldi berean burutu beharko dira, hau da, ekitaldi horretan bertan obligazioaren onarpen fasera iritsi beharko dute. Halaber, kreditu bera urte batean baino gehiagotan ezingo da txertatu, sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital eragiketen kasuan izan ezik.

2016eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren arabera txertatzeko modukoak diren kreditu gerakinak berrikusi ondoren, eta adierazitako araudia jarraituz, 2017ko aurrekontuko 1. kreditu txertaketa proposatzen dut, 1.147.381,69 eurokoa, eta ondoko eranskinean jaso ditut horren finantzaketa eta gainerako xehetasunak.

Zumaia, 2017ko ekainaren 12an
Kontu-hartzailea



ERANSKINA

2017ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---------------------------|--|---------------------|
| d | 1 0100.601.153.20.02 2016 | GARAJE BAJO ESPACIOS DE USO PUBL. | 121.604,85 |
| d | 1 0100.600.171.00.01 2016 | BARATZAK | 20.000,00 |
| d | 1 0100.601.153.20.05 2016 | JADARREKO HORMA | 345.000,00 |
| d | 1 0100.601.133.00.01 2016 | SEINALIZAZIOA, TRAFIKO SEINALEAK | 4.572,90 |
| d | 1 0100.601.153.20.01 2016 | OBRAS MEJORA EN CAMINOS PUBLICOS | 23.565,14 |
| d | 1 0100.601.160.00.01 2016 | INBERTS. EURI UREN AZPIEGITURAN | 1.066,27 |
| d | 1 0100.601.161.00.01 2016 | INVERS. INFRAEST. SUMINISTRO | 6.870,68 |
| d | 1 0100.601.165.00.01 2016 | INVERSIONES EN ALUMBRADO PUBLICO | 10.479,66 |
| d | 1 0100.601.166.00.01 2016 | INVER. INFRAEST. SANEAMIENTO | 6.962,76 |
| d | 1 0100.601.166.00.02 2016 | ARTADI SANEAMENDUA | 230.968,00 |
| d | 1 0100.601.153.20.03 2016 | SAN JOSE-ACCESIBILIDAD | 78.202,30 |
| d | 1 0100.601.153.20.04 2016 | LARRETXOKO IRISGARRITASUNA | 40.000,00 |
| d | 1 0600.609.172.00.01 2016 | UROLA ITSASADARRA GARATZEKO LANAK | 30.000,00 |
| d | 1 0100.622.132.01.01 2016 | FIELATON INBERTSIOAK | 20.000,00 |
| d | 1 0100.622.173.00.10 2016 | INBERTSIOAK HONDARTZAKO INSTALAZIOETAN | 30.000,00 |
| d | 1 0100.622.323.00.01 2016 | HOBETZE OBRAK HEZKUNTZAN (ULO) | 1.227,94 |
| d | 1 0100.622.920.10.01 2016 | HOBETZE LANAK ERAIKIN PUBLIKOETAN (ULO) | 38.892,19 |
| d | 1 0100.625.162.10.01 2016 | HONDAKINGAILUAK | 14.222,25 |
| d | 1 0900.626.920.01.01 2016 | INBERTSIO INFORMATIKOAK | 2.505,90 |
| d | 1 0300.629.333.00.01 2016 | EKIPAMENDU OSAGARRIA | 776,62 |
| d | 1 0300.629.334.01.01 2016 | MUSIKA TRESNAK ETA EKIPAMENDU TEKNIKOAK | 3.004,99 |
| d | 1 0100.643.151.00.01 2016 | ESTUDIOS URBANISTICOS | 7.589,24 |
| d | 1 0100.643.153.20.01 2016 | REDACCION DE PROYECTOS (SAN JOSE, LA | 93.500,00 |
| b | 1 0300.481.334.00.01 2016 | SUBVENCIONES CULTURALES A GRUPOS | 180,00 |
| d | 1 0100.682.152.10.01 2016 | ODIETAKO SUKALDEAK | 16.190,00 |
| TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA | | | 1.147.381,69 |

KODEEN AZALPENA

- a) Aurreko ekitaldiko azken hiru hilabetean onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.
b) Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.
c) Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.
d) Kapital eragiketen kredituak.

2017ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa



| Kod. | Sarreren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|---------------------------|---|---------------------|
| a | 2 0000.870.920.00.01 2017 | DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETAR | 1.147.381,69 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 1.147.381,69 |

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.
 b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
 c) Sarrera konpromisoak.
 d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.
 e) Aurreko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitako epe luzerako maileguak, formalizatu gabeak.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| Gastuen partida | Azalpena | Kredituak | | |
|---------------------------|--|------------|------------|----------------|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behin betikoak |
| 1 0100.227.133.00.99 2017 | MUGIKORTASUN PLANA | 120.000,00 | 26.500,00 | 146.500,00 |
| 1 0200.226.326.00.99 2017 | ESKOLA KONTSEILUA | 26.000,00 | 1.450,00 | 27.450,00 |
| 1 1000.227.336.00.99 2017 | MEMORIA HISTORIKOA | 12.000,00 | 8.281,38 | 20.281,38 |
| 1 1000.226.920.00.04 2017 | GASTU JURIDIKOAK | 50.000,00 | 3.267,00 | 53.267,00 |
| 1 0100.609.171.00.01 2017 | MARIANTON PARKE ESTALIA | 245.000,00 | 12.910,20 | 257.910,20 |
| 1 0100.219.133.00.01 2017 | OTA PINTAKETA | 0,00 | 20.000,00 | 20.000,00 |
| 1 0100.601.133.00.01 2017 | OTA SEINALIZAZIO BERTIKALA | 0,00 | 14.000,00 | 14.000,00 |
| 1 1000.227.133.00.99 2017 | OTA. BESTE HAINBAT GASTU | 0,00 | 60.000,00 | 60.000,00 |
| 1 0100.622.173.00.02 2017 | INBERTSIOAK HONDARTZAKO INSTALAZIOETAN | 90.000,00 | 10.000,00 | 100.000,00 |
| 1 0100.622.132.01.02 2017 | FIELATOAN IBERTSIOAK | 30.000,00 | 100.000,00 | 130.000,00 |
| 1 0100.609.171.00.03 2017 | BEHEKO PLAZAKO PARKEA | 0,00 | 21.780,00 | 21.780,00 |
| 1 0100.601.153.20.01 2017 | HOBETZE OBRAK BIDE | 150.000,00 | 83.507,81 | 233.507,81 |



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

| | | | | |
|---------------------------|----------------------------|------------|------------|--------------|
| | PUBLIKOETAN | | | |
| 1 0100.210.153.30.02 2017 | HAUR PARKEEN MANTENIMENDUA | 5.000,00 | 18.000,00 | 23.000,00 |
| | | | | |
| GUZTIRA | | 728.000,00 | 379.696,39 | 1.107.696,39 |

| Kod. | Partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|---------------------------|---|-------------------|
| a | 2 0000.870.920.00.01 2017 | DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETAR | 379.696,39 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 379.696,39 |

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2017ko ekainaren 16an
Alkatea

Alkateak gaiaren berri eman du.

2.3.- KIROL PATRONATUAREN 1.go KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.

Zumaia udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak 2017ko ekainaren 6ko Dekretuan agindutakoa betez, eta 1174/1987 Errege Dekretuak, irailaren 18koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 32. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordainketa kredituen gerakinak hurrengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan txertatu litezke, bertan adierazitako kasuetan, beti ere horretarako behar adinako finantza-baliabideak baldin badaude.

Aurrekontuaren likidazioaren ondorioz kreditu gerakinak zehaztu behar dira, besteak beste. Gainera, bertan adierazi behar da kreditu horietatik zeintzuk betetzen dituzten txertagarriak izateko aipatutako foru arauak exijitzen dituen baldintzak.

Finantzaketa lotua duten gastuetan, horiei dagozkien kreditu gerakinak derrigorrez txertatu behar dira, ondoko kasuetan ezik: uko egiten zaionean gastuaren gauzatzeari edo gastua gauzaterik ez dagoenean.

Nolanahi ere, kreditu txertaketa ekitaldi honetako ekainaren 30a baino lehen egin behar da.



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

Bestalde, 21/2003 Foru Arauak 32.4. artikuluan ezartzen duenez, txertatzen diren kredituak txertaketaren ekitaldi berean burutu beharko dira, hau da, ekitaldi horretan bertan obligazioaren onarpen fasera iritsi beharko dute. Halaber, kreditu bera urte batean baino gehiagotan ezingo da txertatu, sarrera finalistekin finantzatzen diren kapital eragiketen kasuan izan ezik.

2016eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren arabera txertatzeko modukoak diren kreditu gerakinak berrikusi ondoren, eta adierazitako araudia jarraituz, 2017ko aurrekontuko 1. kreditu txertaketa proposatzen dut, 5.581,72 eurokoa, eta ondoko eranskinean jaso ditut horren finantzaketa eta gainerako xehetasunak.

ZUMAIA, 2017ko ekainaren 6an
Kontu-hartzailea

ERANSKINA

2017ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.

| Kod. | Gastuen partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|---|---------------------------|------------------------------|-----------------|
| d | 1 0000.623.342.01.05 2016 | INSTALAKUNTZETAN INBERTSIOAK | 5.581,72 |
| TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA | | | 5.581,72 |

KODEEN AZALPENA

- a) Aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.
- b) Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.
- c) Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.
- d) Kapital eragiketen kredituak.

2017ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa

| Kod. | Sarreraren partida | Azalpena | Zenbatekoa |
|-----------------------------|---------------------------|--|-----------------|
| a | 2 0000.870.000.00.01 2017 | DIRUZAINZTA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK | 5.581,72 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | | | 5.581,72 |

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- c) Sarrera konpromisoak.
- d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.
- e) Aurreko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitako epe luzerako maileguak, formalizatu gabeak.

Alkateak gaiaren berri eman du



2.4.- IRIZPENA:

2.4.1.- 2016KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

Alkateak gaia aurkeztu du.

Joseba Azpiatzuk (EH BILDU) aipatu du txoten potolo horretan zerbitzu kontratuak falta direla.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. 2016. Ekitaldiko KONTU OROKORRA onartu da.

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENA:

ZUMAIAKO 19-HA-OIKIAKO 19.4 EXEKUZIO UNITATEAREN BARNE ERREFORMARAKO EGITASMO BEREZIARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2017KO UZTAILAREN 20KO HIRIGINTZA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO 19-HA-OIKIAKO 19.4 EXEKUZIO UNITATEAREN BARNE ERREFORMARAKO EGITASMO BEREZIARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Ikusirik EUSKO JAURLARITZAKO, Hezkuntza sailaren ekimenez, Zumaiako Oikia auzoan, eskola berria eraiki ahal izateko, Gonzalez Cavia y Cabrera arkitektura estudioko Marta Gonzalez Cavia, Martin Gonzalez Cavia, Jorge Cabrera Bartolome eta Jesus M^a Baranda Gonzalez arkitektoek idatzitako 19 HA-Oikia, 19.4 Exekuzio Unitatearen Barne Erreformatarako Egitasmo Berezia.

2.- Ikusirik 2017ko martxoaren 14ko 160/2017 zk. duen Alkatetza Dekretuz 19 HA-Oikia, 19.4 Exekuzio Unitatearen Barne Erreformatarako Egitasmo Berezia hasierako onarpena eman zitzaioa.

3.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela iragarkia 2017ko martxaren 24an, baita Berria, Urola Kostako Hitza eta Diario Vasco egunkarian. Era berean, udaleko iragarki taulan eta Zumaiako Udaletxeko webgunean ere argitaratu dela.



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

4.-Ikusirik Dokumentua Kostaseko eta itsasoko zuzendaritza Orokorrera bidali zela eta honek 2017ko Ekainaren 19an aldeko txosten luzatu zuela.

5.- Ikusirik agerraldi publikoaren epe barruan ez direla alegaziorik aurkeztu.

6- Ikusirik 2017ko uztailaren 20ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordean alegaziorik ez dela izan informatu dela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko uztailaren 20ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Jon Iraola Rezola(EAJ)
Alex Oliden Antia (EHBildu)

Aurka:
Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- EUSKO JAURLARITZAKO, Hezkuntza sailaren ekimenez, Zumaia Oikia auzoan, eskola berria eraiki ahal izateko, Gonzalez Cavia y Cabrera arkitektura estudioko Marta Gonzalez Cavia, Martin Gonzalez Cavia, Jorge Cabrera Bartolome eta Jesus M^o Baranda Gonzalez arkitektoek idatzitako 19 HA-OIKIA, 19.4 EXEKUZIO UNITATEAREN BARNE ERREFORMARAKO EGITASMO BEREZIARI BEHIN BETIKO ONESPENA ematea.

BIGARENDOA: Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea

Zumaia, 2017ko uztailaren 20a.

HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDEBURUA
Oier Korta Esnal

Alkateak gaia azaldu du eta, jarraian, bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Zumaia 19-HA-Oikiako 19.4 exekuzio unitatearen barne erreformarako egitasmo bereziari behin betikoz onartu da.



4.- HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMEA ETA UDALZAINGOAK.-

4.1.- IRIZPENAK:

4.1.1.- ZUMAIKO UDALAK ETA IZENPE, S.A.ren arteko LANKIDETZA HITZARMENA ONARTzea, BIDEZKO BADA, ZUMAIKO UDALAK ERREGISTRO ERAKUNDE GISA, IDENTIFIKAZIO ETA SINADURAKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK JAULKITZEKO, ETA ALKATEARI HITZARMENA FOMALIZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

2017KO UZTAILAREN 20KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALZAINGOAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALA ETA IZENPE S.A.LANKIDETZAN ARITZEA IDENTIFIKAZIO ETA SINADURAKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK JAULKITZEN, ERREGISTRO ERAKUNDE GISA.

AURREKARIAK

1. *Lineako ingurunean konfiantzako giroa sortzea funtsezkoa da ekonomia eta gizartea garatzeko. Mesfidantzak (zehazki, antzemandako segurtasun juridikorik ezaren ondoriozkoak) zalantzan jarrarazten ditu kontsumitzaileak, enpresak eta administrazio publikoak bide elektronikoaren bitartez transakzioak egiteko eta zerbitzu berriak bereganatzeko garaian.*

2.

1. kontuan hartuzkoa, 910/2014 Araudia (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko identifikazio elektronikoari eta transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzkoa, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Zalantzarik gabe, lehen kontuan hartuzko horrek leialki jasotzen du Europako barne-merkatuaren egoera sozioekonomikoa. Egungo gizartea gizarte heldua da, herritarren, enpresen eta administrazio publikoen artean elkarreragin elektronikoak lortzeko gai izango den merkatu digital bakarra sortzeko prestatua; gizarte hau gauza da lineako zerbitzuetan eta negozio elektronikoetan eraginkortasun handienera iristeko; eta, azken batean, sozietate honek erabateko konfiantza du merkatu digital bakarrean.

3. Esparru arauemaile berri horrek erabateko garrantzia ematen dio, identifikazio eta autentifikazio elektronikoaren segurtasunari ez ezik, elkarreragingarritasunari ere; halakotzat ulertuta informazio-sistemek eta horiek eusten dituzten prozedurek duten ahalmena datuak partekatze, elkar ezagutzeko eta informazio- eta ezagutza-trukea fidagarritasunez eta segurtasunez ahalbidetzeko.

Araudiaren xede dira, era berean, konfiantzako zerbitzuak (halakotzat ulertuta sinadura elektronikoak, zigilu elektronikoak, denbora-zigiluak, entrega-zerbitzuak edo webguneen ziurtagiriak sortu, egiaztatu eta baliozkotzea), lineako ingurunean konfiantza eta segurtasun juridikoa sortzen laguntzen duten heinean.

Konfiantzako zerbitzu kualifikatuen eta konfiantzako zerbitzuen emaile kualifikatuaren kontzeptuak sartuta, legegilearen asmoa da herritarrengan konfiantza areagotzea, zerbitzu edo produktu kualifikatuen segurtasun-maila handia ziurtatuko duten eskakizunak eta betebeharrak zein diren adieraztearren.

4. Esparru horretan Izenpek sortzen dituen identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoek harpidedunei eta, hala badagokio, gakoan edukitzaileei ere aukera ematen diete modu elektronikoan harremanetan jartzeko administrazio publikoekin, erakunde erabiltzaileekin eta haiek erabiltzea onartu duten instituzio publiko eta pribatuekin, baita azken horien artean ere.

Izenpek, ziurtagirietan oinarritutako identifikazio- eta sinadura-bitartekoez gainera, baditu ziurtagirietan oinarritu gabeko identifikazio-tresnak.

5. Zumaia Udalak interesdunen identifikazio eta sinadura elektronikoko sistematzat onartzen ditu bai ziurtagirietan oinarritutako sistemak, bai beste edozein sistema.



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

6. Ondorioz, helburu izanik interesdunei aukera ematea lizenpeak jaulkitako bitarteko elektronikoak erabiltzeko, bi aldeek interesa dute jarraian eranstean den lankidetzaren hitzarmenean agertzen diren klausulen arabera lankidetzan aritzeko.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko uztailaren ean Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Jon Iraola Rezola(EAJ)
Alex Oñden Antia (EHBildu)

Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo soilak behar delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Zumaia Udala eta lizenpe s.a. lankidetzan aritzea identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzen, erregistro erakunde gisa.

2.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

3.- Erabaki hau jakinaraztea.

Zumaian, 2017ko uztailaren 20an

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ingurumen eta Udaltzaingo **BATZORDEBURUA**
Oier Korta Esnal

Alkateak gaia aurkeztu du eta, jarraian, bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Zumaia Udalak eta lizenpe, S.A.ren arteko lankidetzaren hitzarmena onartu da, Zumaia Udalak erregistro erakunde gisa, identifikazio eta sinadurako bitarteko elektronikoak jaulkitzeko, eta alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna eman zaio



4.1.2.- ZUMAIKO UDALA ETA GFako OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENDUAK INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA, ETA ALKATEARI HITZARMENA FOMALIZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

2017KO UZTAILAREN 20KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALZAINGOAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALA ETA OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENDUAK INFORMAZIOA ELKARRI LAGATZEKO LANKIDEZA HITZARMENAREN D-7 ERANSKINA "GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTA" IZENEN ERANSKINA SINATZEA ONARTZEKO.

AURREKARIAK

Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuaren 23. artikulua Ogasun eta Finantza Departamentuari atxikitzen dio legezko ordezkarien errolda, eta ezartzen du errolda hori buruzko arauketa espezifiko Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren foru aginduz ezarriko dela.

Emandako eskuduntza erabiliz Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Agindua eman zen, Gipuzkoako foru administrazioaren aurrean egin daitezkeen jarduketei mugatuta.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duenari jarraituz administrazio guzti-guztien ahalordetze-erregistro elektronikoa elkarreragingarritasun osoa izan behar dute beren artean, eta horien bidez, baliozko moduan egiaztatu ahal izango da administrazio publikoen aurrean hirugarren baten izenean jarduten dutenen ordezkari, kontsulta eginez antzeko beste administrazio-erregistro batzuetan, merkataritza-erregistroan, jabetzaren erregistroan eta notario-protokoloetan.

Nahiz eta 39/2015 Legearen ahalordetze-erregistro elektronikoei buruzko neurriak 2018ko urriaren 2ra arte indarrean egongo ez diren, herri administrazioen arteko elkarreragingarritasuna garatu bitartean, egokitzat jo da Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldaren aplikagarritasuna lurralde historikoaren udal administrazioari zabaltea.

Irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, 47.2. artikuluan, ezartzen du foru administrazioaren eta beste administrazio publikoen artean bitarteko elektronikoa erabiliz egin daitezkeen datu igorpenak bideratzeko ohiko tresna lankidetzaz hitzarmena izango dela, datu igorpen hori aldira edota jarraian egin behar bada, eta datu horiek interesdun ugari buruzkoak badira edota datu horiek askori eragiten badiete.

Aurrekoarekin bat etorritik, otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduaren bitartez onartu zen Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko izenpetu beharreko lankidetzaz hitzarmenaren eredu. Gipuzkoako ia udal guztiek sinatu dute aipatutako hitzarmena, eta bertan aurrekustun da beste informazio lagapen batzuk gaineratzeko aukera, hitzarmenaren eranskin gisa.

Horiek horrela Gipuzkoako udalek legezko ordezkarien erroldan jasotako datuak atzitu dute aipatutako hitzarmenaren eranskin berrian jasotzen den eran. Eranskin hori, «D-7 Eranskina Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta» izeneko, 162/2017 Foru Aginduaren bitartez onartu eta horren testua Foru Agindu horren eranskinean jasotzen da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko uztailaren ean Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Jon Iraola Rezola (EAJ)
Alex Oliden Antia (EHBildu)
Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soil beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

1.- Zumaia Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza departamenduak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmenaren D-7 "gipuzkoako foru aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta" izeneko eranskina sinatzea onartzea

2.- Alkateari dahlmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.

3.- Erabaki hau jakinaraztea.

Zumaian, 2017ko uztailaren 20an

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ingurumen eta Udaltzaingo **BATZORDEBURUA**
Oier Korta Esnal

Zuzenean bozkatzera pasa dira

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Zumaia Udala eta GFAko Ogasun eta Finantza departamenduak informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren hitzarmena onartu da, eta Alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna eman zaio.

4.1.3.- SANTIAGO HONDARTZAKO EREMUARI BURUZ, GETARIAKO UDALAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA, ETA ALKATEARI HITZARMENA FORMALIZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

2017KO UZTAILAREN 20KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALTAINGOAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO ETA GETARIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA SANTIAGO HONDARTZAREN KUDEAKETARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

1.- Santiagoko ondartzaren bi udal dermioen artean banatuta dago, nahiz eta muga zehatza non izan behar den bi udalerrien artean inoiz ez den erabat finkatu. Desadostasun hau historikoa gertatzen da eta bi Udalerriek Aldundiari gaia behin betiko finkatzea eskatu diote.

2. Santiagoko hondartza Getariako herrigunetik urruti dago eta aldiz Zumaia herrigunearen ondoan, hain zuzen Urola ibaiaren itsas-adarrak banatzen du herrigunetik.

Errealitate geografiko honengatik, Zumaia Udalarentzat garrantzi handikoa gertatzen da eta aldiz Getariako Udalarentzat ez.



Horren lekuko dira Zumaia Udalak azken hamarkadetan inguru honengatik landu eta idatzi dituen agiriak, besteak beste:

1.- Hamar urte dira Santiago hondartzaren inguruko lehen azterketak hasi zirela. Harrezkero, ingurua hobetzeko jarduketa batzuk eginagatik, hondartzari eta padurari ez diote osotasunezko soluzioa eman; besteak beste, 2006ean hondartzako instalazioen birgaitzea, 2008an eraispena, 2012an Eusko Jaurlaritzak eremuari ZEC kategorian sartzeari behin betikoz onartu zuen.

Nolanahi ere, Zumaia Arau Subsidiarioko 2. Sistema orokorraren garapenarako plan bereziarekin baino ez zitzaion benetazko bultzada eman eremuari; izan ere, 2007ko urtarrilaren 26ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuko Foru Diputatuak Foru Agindua eman zuen Zumaia eta Getariako «Santixo Hondartza» 2. Sistema Orokorra garatzeko Plan Berezia behin betikoz onartzeko.

Areago, 2014ko azaroaren 27an Zumaia Udalak Urolako itsasadarra babesteko eta mantentzeko plan berezia onartu zuen.

2.- Hartara, Estatuko Administrazio Orokorra -Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar- 2010eko abenduaren 10ean Santiagoko hondartza ingurumen-berreskuratze proiektua onartu zuen eta 2015eko urrian proiektua -"C.S.: PROYECTO DE RECUPERACIÓN AMBIENTAL DE LA PLAYA DE SANTIAGO. T.M. ZUMAIA-GETARIA (GIPUZKOA)" - LKS, S.Coop-ri esleitu zion.

3.- Ondoren, Nekazal eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, Itsasoa eta Kostaldea iraunarazteko Zuzendaritza Orokorra bitartez, Zumaia Udalarekin intentzio-protokoloa sinatu dute 2017ko maiatzan. Bi aldeek ondorengo asmoak gauzatzeko hitza eman dute:

Ministerioak:

- Duna-eremua berroneratu eta landare autoktonoak landatzea
- Sarbide berria Santiago hondartzara, arrapala berria eta eskailerak
- Aipatu sarbide berrira gerturatzeko eta bide-zortasunetik igaroko den espaloia berrikuntza
- Egun dauden instalakuntzak kentzea

Hori guztia burutzeko proiektu teknikoa egin, onartu, eta aipatu obrak exekutatu eta finantzatu.

Zumaia Udalak:

- Santiagoko paduraren ingurumen-eraberritzea
- Zuloaga finkaren ingurunean sarbidea berreskuratzea
- Zerbitzuetako eraikin berria Santiago hondartzarako
- Txiringito berria eraikin berezian

Hori guztia burutzeko proiektu teknikoa egin, onartu, eta aipatu obrak exekutatu eta finantzatu.

Horretaz gain, Zumaia Udalak konpromisoa hartu du obrak exekutatu ostean beharrezko diren mantentze eta kontserbazio gastuak bere gain hartzea.

4.- 2017ko ekainaren 6an 107. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako itsasertz zerbitzu probintzialak, "Zumaia eta Getariako U.E-an, (Gipuzkoa), Santiagoko hondartzaren Ingurumen Berreskurapenaren proiektua" argitaratu da hogeiei eguneko epean jendaurreko tramitea betetze aldera.

Proiektuak aurreikusten dituen obrak honako hauek dira:

Las obras definidas a nivel de proyecto constructivo son las siguientes:



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

- *Acceso mixto (rodado y de peatones) en rampa y acceso en escalera desde la carretera N-634 a la Playa de Santiago frente al parking actual. Bajo la rampa se proyecta un edificio para la futura implantación de servicios de playa: vestidores, duchas, sala de socorrismo y almacén. El acondicionamiento interior de este edificio se llevará a cabo por parte del Ayuntamiento de Zumaia y no es objeto de este proyecto.*
- *Prolongación de la acera hasta la zona de Erdikohaitza consistente en la ampliación de acera existente y una nueva acera en voladizo.*
- *Urbanización del mirador de Erdikohaitza y acceso en escalera a la playa. Incluye acometidas de agua, saneamiento y energía para una futura implantación de un local de restauración en el mirador.*
- *Implantación de las redes necesarias para las nuevas instalaciones de servicio bajo la rampa, incluyendo la conexión con la red de saneamiento.*
- *Retirada de las actuales instalaciones deterioradas: zona de juego de niños y bar provisional.*

Dado que las obras de saneamiento se realizarán a cargo del Ayuntamiento de Zumaia, tal y como muestran las fichas de reparto de ejecución de actuaciones entre la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y del Mar y el propio Ayuntamiento, la definición y valoración de estas actuaciones se incluyen en una separata.

Saneamenduko obrak, berriz, Zumaia Udala egitea aurreikusten da.

3.- Hitzarmen honek xedetzat hartzen du Getariako Udalaren eta Zumaia Udalaren arteko elkarlankidetzaz zehaztea Santiago hondartzako eremuan exekutatu den proiektuaren ondotik eratorritako kudeaketarako emakida eta gainontzeko azpiegituren kudeaketarako baldintzen inguruan.

Santiagoko hondartzaren erabiltzaileen alde, hitzarmen honen objektua gauzatzeko, bi aldeek ondorengo konpromisoak hartzen dituzte:

1. Zumaia eta Getariako U.E-an, (Gipuzkoa), Santiagoko hondartzaren Ingurumen Berreskurapenaren proiektua"-tik eratorritako azpiegituren emakida Zumaia Udala hartuko du bere gain. Getariako Udala, berriz, bere eskumenei uko egin gabe, emakidari renuntzia egiten dio 5. Klausulan adierazitako iraupenarekin
2. Aipatu azpiegituren mantenturako ohiko inbertsioak eta aparteko gastuak Zumaia Udala finantzatu ditu.
3. Saneamendu obrak Zumaia Udala exekutatu eta finantzatu ditu.
4. Sorospen zerbitzua Zumaia Udala hartuko du bere gain, beharrezko kontratazioak eta kalitatezko zerbitzua emateko beharrezko neurriak hartuz.
5. Zaborra zerbitzua: Zumaia Udala zerbitzu honen gastuaren kargu egingo da.
6. Komun publikoak: bere artapena, esplotazioa eta ardura Zumaia Udalaren ardurapean geratutako da.
7. Getariako Udalaren ardurapean geratuko da "Pintura Etxe" izenarekin ezagutzen den higiezinaren berrikuntzarako obra baimenaren izapidaketa eta onarpena, hala balegokio.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko uztailaren 20ean Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzarde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Jon Iraola Rezola (EAJ)
Alex Oliden Antia (EHBildu)
Aurka: 0
Abstentzioa: 0



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

- 1.- Santiago hondartzako eremuari buruzko Getariako Udalaren eta Zumaia Udalaren arteko elkarlankidetzaren hitzarmena onartzea.
- 2.- Exekutatu den Santiagoko hondartzaren Ingurumen Berreskurapenaren proiektuaren ondotik eratorritako kudeaketarako emakida hartzea, Estatuko Administrazio Orokorrek emandakoa, hain zuzen ere.
- 3.- Aipatu proiektuak aurreikusten dituen saneamendu obrak gauzatzea eta horretarako beharrezko diren finantza-baliabideak onartzea.
- 4.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta hori egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko.
- 5.- Erabaki hau jakinaraztea eta argitaratzea.

Zumaian, 2017ko uztailearen 20an

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ingurumen eta Udaltzaingo **BATZORDEBURUA**
Oier Korta Esnal

Alkateak gaia azaldu du eta, ondoren, bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Santiago hondartzako eremuari buruz, Getariako Udalaren eta Zumaia Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartu da, eta Alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna eman zaio.

5.- GIZARTE ZERBITZUAK:



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

5.1.- IRIZPENA:

5.1.1.- KOORDINAZIO SOZIOSANITARIORAKO PROTOKOLOA ONARTZEA, BIDEZKO BADA, HONAKO HAUEN ARTEAN: DONOSTIALDEA ESI, OSPITALEZ KANPOKO OSASUN MENTALEKO SAREA, UDALEN GIZARTE-ZERBITZUAK ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENUA; ETA ALKATEARI HITZARMENA FOMALIZATZEKO BEHARREZKOAK DIREN AGIRIAK SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

2017KO EKAINAREN 13KO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN IRIZPENA, KOORDINAZIO SOZIOSANITARIORAKO PROTOKOLOA ONARTZEKO HONAKO HAUEN ARTEAN: DONOSTIALDEA ESI, OSPITALEZ KANPOKO OSASUN MENTALEKO SAREA, UDALEN GIZARTE-ZERBITZUAK ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA.

AURREKARIAK

1. EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak honela dio: "Osasun-arazo larriak direla-eta, eta/edo gizartetik bazterturik geratzeko arriskua dela-eta, pertsona batzuek behar dituzten zainketek osatzen dute arreta soziosanitarioa, osasun-arreta eta gizarte-arreta aldi berean biltzen dituen, koordinatua eta egonkorra, arreta jarraituaren printzipioarekin bat datorrena".
2. Dokumentu honen xedea protokolo bat zehaztea da koordinazio soziosanitarioa lortzeko honako hauen artean: DONOSTIALDEA ESIa, Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sarea, udalen gizarte-zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentua. Esparru-prozedura gisa ezartzen da, eta helburua gero udalerrri bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea da.
3. Esku-hartzaileentzat balio operatiboa du, eta denentzat da loteslea. Zerbitzu-erakunde sanitarioek eta bestelako erakunde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute haien ardurapeko esparruan dauden herritarren arreta-beharrei erantzuteko, diziplinarteko esku-hartzeak eginez nor bere zerbitzu-zorroaren bidez, modu integratuean erantzute aldera herritarren beharrei haien ingurune sozial ohikoan, arin eta era koordinatuan betiere, bikoiztasunak eta asistentzia-hutsuneak saihestuta, arretak aurrera jarraituko duela bermatzeko.

IRIZPENA

Ondorioz, 2017ko ekainaren 13an Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 4
Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soila beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.1.) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1. Irizpen honi atxikitzen zaion testuak jasotzen duen Koordinazio Soziosanitariorako Protokoloa onartzea honako hauen artean: Donostialdea ESIa, Ospitalez kanpoko Osasun Mentaleko Sarea, UROLA KOSTAko udalen gizarte zerbitzuetako lehen arreta zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako departamentua.

2.- Alkateari beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

Zumaian, 2017ko ekainaren 13an

GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA
Cristina Vicente Itziar

Zuzenean bozkatzeari ekin diote.



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Koordinazio soziosanitariorako protokoloa onartu da, honako hauen artean: Donostialdea ESI, Ospitalez Kanpoko Osasun Mentaleko Sarea, udalen gizarte-zerbitzuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte politikako departamendua; eta Alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna eman zaio.

6.- PROPOSAMENAK:

6.1.- EH BILDU UDAL TALDEAREN IZENEAN AURKEZTURIKOA, ALOKAIRURAKO ETA EMANTZIPATZEKO DIRU LAGUNTZEN INGURUKOA

TESTUINGURUA: Etxebizitza oinarritzko eskubidea izanagatik, zumaiar askoren kasuan eskubide hau ez da betetzen. Ez da Zumaia kasu isolatua, are gutxiago indarrean den jendartearen prekarietaterako joerarekin, baina Zumaian turismoak duen eraginarekin (azken urteotan, gainera, gorakadarekin) egoera orokor hori larriagotzen ari da gure herrian.

Izan ere, duela urte batzuk Novotec etxeak Zumaia Udalaren eskariz egindako ikerketak zioenez herriko etxebizitzaren %10 pasatxo hutsik zeuden Zumaian. Horrez gain, zumaiarrek azken urte hauetan inoiz ezagutu gabeko fenomeno batekin egiten dute topo: alokairurako eskaria eskaintza baino altuagoa da. Ondorioz, alokairura joan nahi duen zumaiar askok itxaron zerrenda luzeetan zain egotea beste erremediorik ez du. Ziur aski, azken urteotako turismoaren gorakadak eta horrekin lotutako alokairu turistikorako erabilitako etxebizitzek zerikusi zuzena izango dute arazo berri honetan, baita alokairuaren garestitzean ere. Hala ere, alokairu turistikoaren erregulazio eta mugatzeak beste lanketa bat eskatzen duela ikusita, proposamen honen helburua ez da arazo honi zuzenean erantzutea, urte osoan alokairuan bizi diren edo bizi nahi duten herritarren egoerari lotutakoa baizik.

HELBURUA: Proposamen honen helburua da zumaiarrei alokairua ordaintzeko diru laguntzak ematea. Alde batetik, herrian alokairuaren aldeko apustua eta kultura sustraitzeko. Baina, batez ere, alokairuan bizitzeko aukera egiten duten herritarrei hautu horrek bizitza duina izateko duten eskubidea ez ukatzeko. Etxebizitza eskubide unibertsala dela ulertzen delako, eta edozein pertsonaren bizi-proiekturako gakoetako bat.

Azkenik, aipatu behar da diru laguntza hauek ez dituztela gizarte bazterkeria arriskuan dauden herritarrentzako jada indarrean dauden beste laguntza batzuk ordezkatzuko.

ZENBATEKOA: Jada antzeko diru laguntzak aplikatzen diren herrietako zenbatekoak ikusi eta Zumaia ezaugarrietara ekarrita, Zumaia EH Bilduren proposamena da 2018ko aurrekontuetan alokairurako diru laguntza hauetarako 100 000 euroko partida bat bideratzea.

1) Nori zuzenduta daude?

Proposamen hau ondu aurretik, beste zenbait herritan egun existitzen diren antzeko laguntzak aztertu eta konparatu ditugu. Batzuetan laguntzak 18-35 urte bitarteko gazteei soilik bideratuta daude, eta besteetan aldiz, herriko kolektibo gehiagori zabaldu zaizkie (bananduak, 70 urtetik gorako pertsonak, alargunak, seme-alabak euren kargura dituzten guraso bakarreko familiak, mugikortasun arazoak dituzten herritarrak etab.).

Gure ustez, alokairuan bizitzeko eskubidea herritar orok izan behar luke, eta eskubide hori gauzatzeko zailtasunak adin-tarte eta ezaugarri ezberdinetako zumaiarrek izan ditzakete. Horiek horrela, Zumaia EH Bilduren proposamena da diru laguntza hauen hartzaile potentzialak zumaiar guztiak izatea. Beraz, baldintzak betetzen dituen zumaiar orok izango luke eskaera egiteko aukera.



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

Dena dela, laguntza hauetara bideratutako diru-kopuruari dagokiona baino eskaera gehiago baleude, eskarien artean lehentasunezko hurrenkerak finkatzeko hartzaile-motari buruzko hurrengo irizpidea jarraitzea proposatzen dugu:

Lehenik, eta dituzten diru sarreraren arabera hurrenkeran ordenatuta, honako kolektibo hauen barruan sartzen diren herritarrak: 18-35 urte bitartekoak, 70 urtetik gorakoak, alargunak, guraso bakarreko familiak, bananduak eta mugikortasun arazoak dituzten herritarrak.

Horien ondoren, eta dituzten diru sarreraren arabera hurrenkeran ordenatuta, aurreko kolektiboetatik kanpo gelditzen diren zumaiaarrak.

Azkenik, eta aipatutako hurrenkeren barruan, diru laguntza lehen aldiz eskatzen dutenak lehenetsiko dira bigarrenaz eskatzen duten ezagarrak berdineko eskatzaileen aurrean, bigarrenaz eskatzen dutenak hirugarrenez eskatzen dutenen aurrean etab.

Bestalde, diru laguntzak eskatzeko aukera zumaia orori irekia egonagatik, arreta berezia eskaini nahi diegu herriko gazteei. Gaur egun, gazteek zailtasun handienak gurasoen etxetik irten eta bizi proiektu propioa eraikitzen hasteko garaian aurkitzen dituzte, hau da, emantzipatzeko urratsak ematean.

Zumaian dagoen alokairu eskaintza oso urria da eta eskatzen diren baldintzek, batez ere ekonomikoek, aukera hori are zailago bilakatzen dute. Gainera, lehen urtean, bestelako diru-laguntzak eskatzeko (DSBE, EPO...) aukerarik ere ez dute izaten emantzipatzeko aukerak ere gehiago murriztuz.

Hori horrela, zumaia orori eskainitako alokairurako diru-laguntzekin batean emantzipatzeko diru laguntzak bermatzea proposatzen dugu. Horretarako, alokairurako diru laguntzak bermatzeko diru kantitateaz gain, urrats hau eman nahi duten gazteentzako beste diru kopuru bat bideratuz.

Diru laguntza hauen izaerari dagokionean, Zumaia EH Bilduk diru laguntza hauek herritarrei (norbanakoei) zuzentzea proposatzen du. Izan ere, jada honelako laguntzak indarrean dauden herrietan hauek familia edo bizikidetzaren unitateei zuzendutakoak izan arren, ulertzen dugu justuagoa dela norbanakoei zuzentzea.

Alde batetik, beste pertsona batzuekin alokairua konpartitzeak ez duelako familia edo bizikidetzaren unitate bat sortzea berez ekarri behar. Tipologia anitzak aurki ditzakegu gure inguruan, eta guztiei lekua egiteko modurik onena laguntzak herritarrari, norbanakoari, zuzentzea da.

Beste alde batetik, laguntzak ematerako orduan, benetan baldintzak betetzeko hurrenkeraren arabera behar gehien dutenei eman ahal izateko modurik onena norbanakoei zuzentzea dela uste dugu. Izan ere, adibidez etxebizitza batean hiru lagun bizi badira, eta laguntza eskatzeko baldintzak horietatik bakarrik beteko balitu, ulertzen dugu ez litzatekeela justua beste biek baldintzak ez betetzeagatik hirugarrena laguntzarik gabe uztea, eta ezta bakarrik laguntzak betetzeagatik beste biek automatikoki laguntzak jasotzea ere. Gainera, horrela laguntzak gehiago banatuko lirateke eta baldintzak betetzen dituen jende gehiagok izango luke jasotzeko aukera.

Beraz, laguntzak norbanakoei ematerakoan honako prozedura jarraitzea proposatzen dugu: alokairuaren kontratuan agertzen diren errentariak hartuko lirateke kontutan. Beraz, baldintzak betetzen dituen norbanakoari emango zaion laguntzaren kopuruaren oinarria, alokairu osoaren kopuru/errentari kopuru izango litzateke.

Haurrak dituzten bizikidetzaren unitateak salbuespenak lirateke, kolektibo honek bizikidetzaren unitateei dagokien prozedura jarraitzea proposatzen dugu (Guraso bakarreko familien kasuetan izan ezik).

Laburbilduz, honako diru laguntzak dira proposatzen ditugunak:

1) Alokairurako diru laguntzak (partida osoaren %80a): alde batetik nominalak eta bestetik haurrak dituten familiei, alegia, bizikidetzaren unitateei zuzendutakoak.

2) Emantzipatzeko diru laguntzak. Gurasoen etxetik lehen aldiz emantzipatzen diren gazteei bideratuta. Hauek ere nominalak izango lirateke. (partida osoaren %20a).

Horrela, aurreko bi taldeetatik batean diru partidaren ehuneko osoa estaliko ez balitz eta aldiz bestean ehuneko osoa estalita ere eskari gehiago badaude, talde bati zuzendutako partida-zatiaren soberakinak bestean erabiliko lirateke.

2) Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Baldintza orokorrak:

- Azken bi urteetan, gutxienez, zumaian erroldatua egotea.
- Alokairua erregulatzen duen errenta kontratua bere izenean izatea.
- Alokairuan bizi den etxebizitzaren erroldatua egotea.
 - Errenta kontratua gutxienez urtebetekoa izatea.
- Etxebizitzarekin loturiko bestelako diru laguntzarik ez jasotzea (EPO besteak beste)
- Zumaia Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenen ordainketak egunera izatea.
- Diruz lagunduko den etxe bizitza Zumaia udalerrian kokatuta egotea eta dagokien bizigarritasun baimena izatea.
- Laguntzetatik kanpo utziko lirateke, sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak, logelen alokairuak, etxebizitza gisa erabilitako lokalak eta Etxebidaren programen barruan alokatutakoak.
- Onuradunaren eta errentatzailearen artean inolako familia-loturarik ez izatea odolkidetasun edo chaidetasuneko bigarren mailaraino.

Diru laguntzak eskatzeko, diru sarreraren mugak:

Bizitza duin bat izateko, gutxienez 1200 euro gordinetako diru sarrerak behar liratekeela irizita, diru laguntza eskatu ahal izateko diru sarreraren gehienezko muga honakoa proposatzen dugu:

- Nominala: 25 000 euro gordin/urtean



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

Bizikidetzaren unitateen kasuan: 50 000 euro gordin/urtean

Atal sistema:

Diru laguntza nominalak (alokairurako zein emantzipatzeko):

0€ - 16 800€ --> Alokairuaren zati nominalaren (alokairua/errentari kopurua) %50.

16 800€ - 25 000€ --> Alokairuaren zati nominalaren %25.

Diru laguntzak bizikidetzaren unitateko (haurrak dituzten familientzat):

0€ - 36 000€ --> Alokairu osoaren %50.

36 001€ - 50 000€ --> Alokairu osoaren %25.

Bizikidetzaren unitateko eskabideak egiteko:

Kasu honetan baldintza orokorrez gain honakoak ere bete beharko lirateke.

Onuradunek haurrak euren kargu izatea.

Bizikidetzaren unitatea, gutxienez, adin nagusiko bi pertsona eta haur batek osatzea.

Emantzipaziorako diru-laguntzak:

Kasu honetan, baldintza orokorrez gain honakoak ere bete beharko lirateke.

Errenta kontratua sinatu eta 15 eguneko epean kontratuan ezarritako bizilekuan errolatzea. Errentan agertzen den bizilekuan errolatu aurretik gurasoen etxean errolatua egotea.

Aurrez diru laguntza hau inoiz ez jaso izana.

30 urte baino gutxiago izatea.

3) Alokairuaren prezioaren topea

Diru-laguntza hau emateko baldintzak bete behar izateko, alokatzen den etxebizitzaren prezioaren tope bat ezartzea proposatzen dugu. Izan ere, ulertzen dugu tope hau ez ezartzeak jada Zumaian existitzen den alokairuaren prezioaren garestitzea areagotu dezakeela, "burbuila inmobiliario" deritzona hauspotuz.

Beraz, antzeko diru laguntzak indarrean dauden herrietan ezarritako topeak eta Zumaian alokairuaren batzuk besteko prezioa ikusita (azken hau jakiteko herriko higiezin ezberdinetako informazioa bildu da) Zumaia EH Bilduk 700 eurotan kokatzea proposatzen du.

Proposamena izanik, urgentzia berresteari bozkatu diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (5 EAJ-PNV; 5 EH BILDU; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Proposamena eztabaidatzea eta bozkatzea onartu da.

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) adierazi du aurrena Arritxuk egingo duela sarrera txiki bat eta gero berak proposamena azalduko duela (ekainaren 30ean aurkeztu zen erregistro orokorrean).



Arritxu Iribarrek (EH BILDU) sarrera egin du testua irakurriz:

“2017ko aurrekontuak onartu zirenean udaletxeko ordezkari guztiok bozkatu genuen emantzipaziorako diru laguntzetarako partida bat eta pleno hartan abenduko plenoan 2017rako gai honek izango zuen garrantzia jasota gelditu zen.

Denbora aurrera zihoan eta martxoko gazteria batzordean galdetu genuen zertan zen gaia. Akta jasota dago esan zitzaigun lanean ari zela udal gobernu eta aurkeztuko zitzaigula proposamen bat edo asmo bat zer egin zitekeen 2017an.

Denbora aurrera joan zen maiatzaren hasieran berriz ere egin genuen galdera, antzeko erantzuna jaso genuen eta esan genuen, guk zerbait egin genuela eta besterik gabe zirriborro bat aurkeztu genuen eta banatu genuen batzorde hartan hurrengo eztabaidarako eta eskatu genuen batzorde monografiko bat gai horretaz.

Handik gutxira batzorde monografiko hori egin zen handik hamabost egunera eta EAJ-k gainera alkatea bera izan zen aurkezpena egin zuena, beka sistema moduko laguntza proposamen bat ekarri zuen, dokumentazioa ez daukagu, power point aurkezpena izan zen, dokumentazioa ez daukagu eta gu bai interesgarria iruditu zitzaigun eta lanean jarraitu genuen gaiarekin eta erregistratu genuen guk landutako gaia batzordeetan aztertzeko.

Batzordean aztertzearekin batera gure nahia zen herritarrekin aztertzea, bilera ireki bat deitu genuen, sare sozialetan ere publikatu genuen gure proposamena zein zen, iradokizunak jaso dira eta faltan bota duguna da batzorderik ez egitea eta zuzenean plenora ekartzea gaia,

Gure asmoa zen batzordeetan eztabaidatu, egin diren iradokizunak eta aztertu, beste proposamenik bazegoen aztertu eta guztion artean aurrera eramatea proiektu hori.

Zergatik orain?

2016an, abenduko akta hartan jasotzen den bezala probarako eta pixka bat neurtzeko herriaren egoera zein den ikusteko balioko zuela uste genuen eta uste dugu ezin dugula utzi 2017a alferrik galtzen gai honen inguruan, zergatik orain?

Arrazoa hor dago 2018rako 17an egiten dena oinarri izan daiteke, zeren, seguru aldaketak egin beharko direla, gauzak ondu beharko direla, zeren, hau abiapuntua da guztiontzat eta izango dira zer ondu eta zer zuzendu, kendu edo gehitu, horregatik dator gure proposamena orain.

Kantitateak bai aldatzen dira 2018ari begira baina guretzat garrantzitsua da 2017an ez galtzea daukaguna eta uste dugu oinarri bezala izan daitekeela kantitate horiek aplikatzerakoan oinarri bezala izan dezakegula guk proposatzen duguna baina bai esaten dizuet gure aldetik irekita geundela eta gaudela guztion adostasunarekin horrelako proposamen bat aurrera eramateko.

Jabetzen gara Zumaian une honetan arazo larria, larritasun handiagoak agian izango dira baina gizabanakoak etxebizitza izateko eskubidea badu eta momentu honetan batetik prezioak direla eta zailtasun handiak daude eta beste errealitate bat bizi dugu etxebizitza alokairurako oso gutxi dagoela ia-ia



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

apenas dagoela, orduan gai horri heldu behar zitzaioela eta hau da gure proposamena ingurumen horretara”

Nerea Eizagirrek (EH BILDU) jarraian teknikoki proposamena azaldu du, hitzez hitz:

“2017an diru partida hori badagoenez, baldintza hauetatik edo abiatuta gastatzea diru partida hori eta gero 2018rako eskatzen ditugu 100.000 €ko diru partida.

100.000 €ko diru partida hau ez da... atera dugu konparatuz beste herrietan eta adibidea esateko Azpeitian 86 kasu eduki zituzten 80 banatu zituzten azkenean 2016an 150.000 diru partida zeukaten.

Hau da, benetan herritarren arazo eta inpaktu erreal bat edukitzea nahi badu proposamen honek ba... diru partida handi xamarra beharko dela ikusita beste herrietan martxan dagoenagatik.

Aipatutakoa baita ere urgentzia edo diru partida hori gordeta zegoela ez? aurrekontuetatik eta falta zaizkigun hilabete hauetan martxan jartzea.

Hortaz, zein izango lirarteke onuradunak, ez?

Lehendabizi ere bai, pixkat kokatzerakoa gaia, guk ulertzen dugu izatez arazoa etxebizitzan politika eta arazo larriago bat dela, ez? orduan kontziente gara ere, goazela eskatzaileei edo pertsona indibidualei erantzutea behar hori baina izatez hau dagoela lotuta etxebizitza politikekin eta orduan izan beharko litzatekeela pauso bat, ez? pauso bat Zumaiar azkenengo ikerketan Novotek egin zuenaren arabera etxebizitzaren %10a dago hutsik ez? eta gaur egun esaterako inmobiliaria batera joaten bazara ez dago ia-ia eskaintzarik, ba... proposamen hau joan beharko litzatekeela lotuta etxebizitza politikekin ba... hori alokairua eta sustatzeko baina pauso bat bezala.

Hortaz baldintzetan sartzen, zein izango lirarteke gure proposamenaren arabera ze pertsonak eskatu ahalko lukete ez?

Aurrekontuetan udal gobernua proposatu zuena izan zen gazteak ez? o sea gazteak 30urte izatea baldintza, gu egon ginen aztertzen aurrena gu zinegotziok eta gero herritarrekin kontrastatzen eta iritsi ginen konklusioa edo ondorioa izan zen gazteak daukaten etxebizitzarekiko arazo larri bat baina ez gazte bezala biologikoki daukazulako 18 -21 urte edo 26 ez? o sea dela egoera sozio ekonomikoan erantzun zuzena, orduan esaten genuen orduan ez zeukala gure ustetan zentzurik jartzea, ze jarri behar dugu franja 30ean 31a, 35 edo non? izatez baldin bada norberaren egongo direlako gazteak ba... lan egonkor batekin edo ez daukatenak behar hau, ez?

Horregatik, iruditzen zitzaigun buelta bat ematea edo, eta pentsatu duguna izan da Zumaiar orori zuzentzea, hau da, Zumaiar oro izango litzateke alokairu hau jasotzeko eskubidean edo beti ere baldintza jarriaz diru sarreretan eta hor ezarriko genuke baldintza eta horrekin bai aurrekontuetan zegoenetik edo bai badagoela aldateta handia bat edo ezta?

O sea ez dela gazteei zuzenduta bakarrik baizik eta Zumaiar orori zuzenduta baina Zumaiar orori zuzentzea planteatzen dugu baina kontutan izanik ere guk gazteak direla gaur egun arazo larri hau pariatzen duten zati handienetakoa edo proposatzen duguna da partida guztia, ez? diru partida guztian % 80a orokorrean banatzea kasu orokorrek baina gordetzea % 20 bat segurua lehendabiziko aldiz emantzipatzea doazenen kasuetan ez? O sea



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

lehendabiziko aldiz gurasoen etxea utziko duten kasuetan, hola bermatzen duelako gazteek ziurtasun hori baldin badaukate ba... bultzatzen duela ere gazteak etxetik ateratze hori.

Orduan pixka bat eskatzaileek bete beharreko baldintzak, Baldintza orokorrak planteatzen ditugu:

- Azken bi urteetan, gutxienez, zumaian erroldatua egotea.
- Alokairua erregulatu den errenta kontratua bere izenean izatea.
- Alokairuan bizi den etxebizitzan erroldatua egotea.
- Errenta kontratua gutxienez urtebetekoa izatea.
- Etxebizitzarekin loturiko beste diru laguntzarik ez jasotzea (EPO edo bestelakoak)
- Zumaia udaleko zerga, tasa, horiek egunean izatea
- Diruz lagunduko den etxebizitza Zumaian kokatua izatea
- Laguntzetatik kanpo geldituko lirateke, sustapen publikoko etxebizitzak, e.a. baita ere garrantzizkoa aipatzeko ez dadin egon hor gero tranparik edo ezer ba... onuradunaren eta errentatzailearen artean inolako familia-loturarik ez egotea bigarren mailaraino, inork ez erabiltzea laguntza hau, hau da, laguntza hau behar dutenak eskatzea.

Eta sartuz orduan guk ezarri ditugun baldintzak edo aipatuz eh? direla... Eskatzaile hauen diru sarreretan planteatzen genuen eta orain azalduko dizuegu zergatik, o sea, datu hauek daukatelako.... Horrela jarri dugu power pointean bisualago izateko ez? aipatu gabe

Lehendabiziko tarteak, o sea, planteatzen genuen bi sako bezala sortzea eskatzaileen artean eta lehendabiziko tartekoan beraien alokairuaren %50a jasoko lukete bakoitzak zati nominala gero sartuko gara horretan eta bigarren tartekoak %25a, bale?

Beste aukera batzuek ere badaude, adibidez, Azkoitian egiten dutela tarte honetatik hona % 10a; tarte honetatik hona %20a, baina guk horrela planteatu dugu pentsatzen genuelako diru partidari gehiengoa igual lehenengo sako horretan banatzea, ez? horregatik % 50a eta gainerakoa ba... %25ean. Ikusten duzuen bezala 16.800ko franja hau edo muga hau jarri dugu delako kalkulak atera ezker da 1.200 soldata bat 14 paga jasota eta kalkulu hori atera dugu ba... gaur egun zenbait ikerketak baita ere sindikatuek eta beste eremu batzuetan aipatzen da gure eremuan Euskal Herrian edo duinki bizitzeko 1.200 €ko soldata hori behar dela ez? horregatik ezarri dugu lehendabiziko tarte hori duintasunaren muga horren barruan biziko liratekeenak, eta gainontzeko bigarren tarte hori ezarri dugu ba.. 1.200 soldata horretatik gorakoak eta 25.000 € arte.

25.000 €ko muga hori ere ezarri dugu kalkulatu 1.800 €ko soldata bat 14 pagakin, esan nahi dut ezarri behar genuen muga bat ez? ze... herritarrek eskatu ahalko luketen benetan izateko behar bati erantzunez eta pentsatzen genuen 1.800etik gorako soldata duenak ba... laguntza honetatik kanpo gelditzea.

Zati nominalarena aipatu antzerako diru laguntzak eta daudenetan eta baita zenbait beste gizarte zerbitzuetako laguntza batzuek eta beti edo askotan eskaintzen direla bizikidetzaren unitateko edo familia unitateko ez? baina iruditzen zitzaigun bati bat gainera gazteak izango direnez onuradunak eta errealitateari



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

begiratuz laguntza hau bai eskatu eta bai banatu behar zela nominalki, hau da, adibidez, gu hirurok edo edozein egon gaitzkeela etxebizitza bat konpartitzen baina ez dugula zertan bizikidetza unitate bat edo familia unitate bat eratu gure artean, eta bereziki kontuan hartuz egon daitezkeela baldintza ekonomiko oso ezberdinak, adibidez, Arritxuk eduki dezake 2.000€ko soldata bat ez? eta orduan automatikoki kanpoan geldituko litzake, Joseba igual langabezia dago eta Alexek dauka bigarren tarte horretan sartzen den diru sarrerak, orduan ikusita beste toki askotan bizikidetza unitatea bezala hartuta gertatuko litzakeena da etxebizitza potentzial asko edo etxebizitza horretan bizi diren pertsonak kanpoan geratzea laguntzagatik, ez?

Ba... kasu honetan Arritxuk berak egingo baluke eskaera eta berak baldintzak pasa ba... gainontzekoak ere agian ez lukete jasoko.

Eta alderantziz iruditzen zitzaigun pasa litekeela adibidez, Arritxuk nahiz eta etxe horretan bizi baina diru soldata pasatzen duenez, bera eskaera egiterakoan ez sartu, ulertzen da, ez? o sea bere izena ez sartu eta igual etxebizitza horri eman baina izaten dago pertsona bat diru soldata gehiagorekin.

Hortaz, guk horregatik planteatzen dugu nominala izatea, hau da, eta nominala kalkulatzeko ez? oso erraza, hemen jarri dugu adibide bat baina pixkat da alokairua baldin bada 600€koa, demagun lehendabiziko pertsona Amaia sartzen dela lehendabiziko tarteko baldintzan ez? hau zen %50a jasotzen dutenak, orduan kalkulaten da 600 balio baldin badu alokairuak hilabeteko hiruen artean, bakoitzak 200 ordaindu behar du eta Amairi bere baldintzagatik 100 tokatuko litzaioke, Mikel ez da baldintzetan sartzen gabe gelditzen da, laguntza hau gabe eta Ahmed hirugarren hau sartzen da bigarrenko tarteko baldintzan ba... 50; o sea oso ximplea baina hor ez?

Salbuespenak eta bukatzera noa, albuespen bezala ere bai hartu dugu iruditzen zitzaigun nominalki egiteak bazeukala errealitatea gerturatzeko eta potentzialtasuna ez? Errealitatea eta hori dirua jende gehiagorena banatuko litzateke eta hori dena baina ez genuela ere ahaztu behar ba... agian badaudela pertsonak menpeko dauzkatena ez? haurrak edo beste menpeko pertsona batzuek beraiekin, orduan albuespen txiki hori egin behar genuela eta hauen kasuan diru tartea edo pixka bat handitu, 1,200 izan beharrean ba... zabalagoa ez? zeren ez dira beraiek bakarrik bizi baizik eta aho gehiagori ere jaten ematen die eta horregatik zabaldu ditugu tartea bizikidetza unitatearen kasuan eta lehen aipatutakoa ez? hauxe izango litzateke gordetzea %20a emantzipaziorako eta gainontzekoa %80a guztientzat.

%20 horretan lehendabiziko aldiz emantzipatuko liratekeen kasuetan baldintza batzuek ezarri behar dira ez? Orduan, hor ezarri ditugun baldintzak aurrekoetz gain, hau da, aurreko baldintza guztiak bete beharko lirateke diru sarrerena e.a. baina izango litzake 30 urte edukitzea gehienez eta bati bat gurasoen etetik lehendabiziko aldiz joatea alokairura ez? hori frogatu egin beharko da eroldarekin eta lehendabiziko aldia izatea eskatzen duena.

Eta azkenik eta hau agian ere bada, eztabaidan puntu handienetako bat edo izango litzateke kontu handia izan behar dugula diru laguntza hauek ezartzerakoan ez dezala eduki efektua ba... lehendik ere Zumaian igotzen doan alokairuen prezioak gehiago igotzean ez?



Zumaia Udala

2017IAKU0004-007-003

Orduan hori kontenplatu egin behar dugula eta nolabait ere neurri batzuek hartu behar direla, horregatik ezarri beharra dagoena da edo herri askotzan da ezartzea alokairuen prezio bat edo tope bat ez? Prezio horretatik tope horretatik gorako alokairuak ez litzateke sartuko ba... baldintza hauetan.

Aurreko baldintza guztiez gain erakutsi behar da ere zure kontratua, alokairu kontratua eta topean baldintza hau bete.

Guk Zumaian ezarri dugu 700€koa, hau egin dugu zenbait inmobiliariakin kontsultatu eta gero, jakin da Zumaian zenbatean dauden gutxi gora behera alokairuko prezioak. Baita ere hau izan daiteke martxan jartzerakoan laguntza mugimendua eduki dezakeen puntu bat edo baita ere salbuespenak egin daitezke, ez dakit, familia bat bizi bada edo lau pertsonatik gora edo hiru pertsonatik gora ba... zazpiehun euro pixkat zabaltea edo bestela ezarri zeren Zumaian bai pasatzen da segun eta ze auzoetan prezioak ezberdin doaz, igual ezarri auzo batzuetan prezio bat beste auzoan beste bat, formula ezberdinak egon daitezke errealitatearekin kontrastatzerakoan pixkat aldatu daitekeen, baina beti ere esaten duguna kontuan hartuz behintzat gure laguntzak ez duela are eta gehiago bultzatuko alokairuen prezioa igotzea, hain justu hori pixkat ekidin nahian edo gatoz laguntza hau aurkeztea,

Etxebizitzak bete behar dituen beste baldintzak lehenago aipatu ditugu eta horixe gutxi gora behera hau izango litzateke gure proposamena hori landutakoa da, esandakoa eta horixe gauza batzuek ere mugitzeko daude eta eztabaidatzeko.

Gure proposamena orduan hori batez ere, ez?

